


Astekaria



elgoi

Iluntasunarekin elkarbizitzen



ALBAITARITZA KLINIKA

ABERE TXIKIETAN ESPEZIALIZATUAK

San Roke, 26 (tren geltokiaren gainean) ELGOIBAR

Telefonoa 74 07 04 • LARRIALDIK (24 ordu) 908 87 39 40

ORDUTEGIA: Goizez 11-13, arratsaldetan 5-8 eta larunbatetan 11-13,30

**IREKI
BERRIA**





IZAN BISTA... ETA ERAMAN EZAZU

**HILERO ALDATZEN DIREN KONTAKTUZKO LENTEAK EROSTERAKOAN
ERAMAN ITZAZU TXAMARRA HAU
ETA LEHENENGO LENTE PAREA ERREGALU**

Multiópticas-en, Zerbitzu Optikoetan 1goak, sei hilabetetako kontaktu lenteak eta hauek garbitu eta zaintzeko likidoa erosteagatik, lehenengo lente pareta eta eskusiboa den txamarra olinpikoa erregalaten dizkizugu.



19.500 pta.



San Frantzisko 21 • ☎ 74 03



I. MORKAIKO ARGAZKI LEHIAKETA

- Gaia: Mendia
- Neurria: Librean
- Koloretan nahiz zuri-beltzean
- 4 argazki gehienez
- Elgoibartarrei eta Morkaiko M.E.ko bazkideei (Elgoibarkoa ez bada) zuzendutako lehiaketa.
- Argazkiak entregatzeko epea: Abenduak 1 (Morkaiko M.E.n)

OHARRAK:

- Argazkien atzealdean non eta noiz ateratakoak diren jarri behar da.
- Argazkiak sobre edo kartazal handi batean sartu behar dira. Bertan kartazal txiki bat sartu egilearen izen-abizenekin eta telefonoarekin. Argazkietan eta sobre txikian ezizena jarri.
- Argazkiekin erakusketa egingo da.
- Sari banaketa abenduaren 26an izango da.

elgoi**BARREN**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12

ARGITARATZAILEA:
Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:
Elgoibarko Udala.

ZUZENDARIA:
Ainhoa Lodoso.

ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:
Andres Alberdi.

KAZETARIAK:
Ainhoa Lodoso,
Jasone Osoro.

MAKETATZAILEA:
Maite Rementería.

PUBLIZITATEA:
Nekane Etxaniz.

ADMINISTRAZIOA:
Amaia Martín,
M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:
Irati Agirreazaldegi, Andres
Alberdi, Esteban Antxustegi,
Pello Arrieta, Felix
Arrizabalaga, Mikel Artola,
Izaskun Elizburu, Jon Etxabe,
Jon Eugi, Ina Garagarza,
Joseba Gorosabel, Lorea
Gorostiaga, Amaia
Gorostiza, Xabier Gorriti,
Ana Igartua, Maite Iriondo,
KOKOE, Joseba Konde,
Eduarne Korta, Imanol
Larrañaga, Javi León,
Antonio Maticas, Susana
Mujika, Maite Solozabal,
Karmelo Urdangarin, Julen
Zabaleta.

BANAKETA ARDURADUNA:
Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:
Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.500 ale

LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere
gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.



Bolo-boloak

Entzun al dozu azken berrixa?
Bolo-bolo dabil herrixan. Mari
Jose-panaderokuan semiak hau eta
hau ein ei dau. Bai, bai, benetan,
bere lehengusina baten auzoko batek
esandakua da... Ene, haundixa da gero!
Banenguan ba!, azken aldixan astorauta
zebilela beintxatzen jatan. Ointxe
bertan kontatu bihar diet lagunei...". Eta
hortik aurrera, kristonak esango dira
mutil gizajoaz, gero eta kontu handiago
eta beldurgarriagoak, benetan gertatu
denaz inolako zerikusirik izango ez
dutenak. Bere kontura majo hustuko du
askok ahoa denboralditxo batez,
hurrengo berriketaren txanda iritsi arte.
Orduan, gai zaharra alde batera utzi eta
berriari ekingo diote denek, eta horrela
beti.

Herrietan, eta batez ere herri
txikietan, takian-potian zabaltzen dira
bolo-boloak. Esamesek eta
zurrumurruek ez dute inoiz atsedunik
hartzen, eta edonoren izena erabil
dezakete belarri eta mingain
kontakatiluengozamenerako.
Batzuetan, bolo-boloaren oinarria egia
izaten da, baina esanaren esanez,
hasieran grano txikia zena hanka
moztera eraman duen gangrena izugarri

bihurtuko da azkenerako, kontalari
bakoitzak bere ukitua gehitzen baitio
istorioari, zeharo itxuraldatzeraino.
Beste batzuetan, berriz, gezur hutsak
izaten dira, alde-alde botatakoak eta
min egiteko asmoz sortuak, baina hala
eta guztiz ere, jendea gustura aritzen da
berba eta berba. Gehienetan, gainera,
gaizki- esaka ibiltzea izaten da kontua,
itxura denez, ogi onak ez du hain mami
ugaririk eta.

Zoritarrez, mingainluze ugari
izaten da alde guztietan, herritarren
gorabeherarik txikienak ere ezagutzeko
gose, jakinminez beteta, norbaitez
direnak eta ez direnak esateko
irrikitzen. Hara eta hona ibiltzen dira,
belarriak tente, zer ikusiko eta zer
entzungo. Baina beraiek izaten dute,
hain zuzen ere, zer konpondu eta zer
ezkutatu gehien eta, beharbada, inoren
mina eta kaltea erabiliko dituzte
sendagarritzat. Nahikoa lan izaten da,
bada, norberaren bizimodua antolatzen,
gainontzekoena nahasten hasteko.

Dena dela, horrelako asko
izanagatik, eskerrak beste askok kontu
horiei ihes eta entzungor egiten dien,
bestela...

Maite Solozabal

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*





GALDERAK

IMHtik Kiroldegira dagoen bidezidorrean, ba al dago argirik ipintzeko asmorik?

Alkatearekin egon gara eta ezetz erantzun digu. Toki horretan etxe berriak egin behar omen dituzte laster eta ez du merezi orain ezertan hasterik. Konpondu eta hobetuko den bidea Mintxeta eta San Roke lotzen dituen izango da.



KEXAK

Bi kexa dauzkagu aste honetan:

- "Lehengo egun batean norbaitek autoan marra batzuk egin zizkidan eta gainera AITOR izenaz sinatzeko detailea izan zuen. Aitor, benetan asko gustatu zitzaidan egindakoa baina hurrengoan laga zure erretratua egindako lanagatik zoriondu ahal izateko".

- Emakume batek deitu digu GUASS dantzalekuaren parean dagoen zebra bidea (Urasandira joateko) eta bertan dagoen semaforoa oinezkoek ez dituztela erabiltzen salatzen. Ez dagoenean amorratuta eskatzen omen dugu baina ipini ondoren "paso" egiten dugula adierazi digu. Okerren bat gertatu arte?

ESKUTITZAK

Nola aldatzen diren gauzak, Kamarada!

Dio euskal abesti ezagun batek, eta benetan hirea atrebentzia latza duk motel, ezker abertzalearekin obsesionaturik hagoen seinale (gutaz aparte zerbaitez hitz egiten al duk?).

Hik eta hirekin ibilitakoen (EE, EUE,..) "eboluzio intelektual" k benetan ez dik parekorik: euskal iraultza komunistan hasi eta espainiar sistema demoGALtikoen defentsan bukatu. Hemen jakina denez aberkideok Demokrazian bizi baikara!! Winston Curchillek horrela definitu zuen demokrazia: zuen etxeko tinbrea goizko 6tan entzuten baduzue ziur egon esne saltzailea dela, hemen aldiz, horrelakorik gertatuta... oso esne txarrarekin etortzen direla ziur gaude. Ezberdintasuna ulertzen?

Eeko neska-mutilak kriterio sakonekoak zineten, jakina, (la gauche divine), baina gero, gaixoak, hainbeste EL PAIS eta DIARIO VASCO irakurri ondoren, Hamleten zalantza berean murgildu zineten: Izan ala ez izan (abertzale ezkertiarak) . Hor zegok gakoa? Eta batzuk PSOEn, besteak PNV-EAN eta Ortuellako zuen zinegotzia orain PPh... horiek omen HBk ordezkatzan ez dituen ezker-ezker abertzaleko militanteak!!

Guk, eta nik pertsonalki oso ongi ezagutzen ditiat zuen GALtolerantzia, zuen KARTZELAtoleranteak, zuen BILINGUISMOTolerantea (euskara eskubide, espainol-frantsesa derrigorrez), zuen TORTURAtolerantea, zuen

INFORMATIBOToleranteak, zuen ZERGAtoleranteak (guk zerga espainiar edo frantsesik ordaindu ez bage-nitu, zer egingo ziguten, ene aingeru bakezalea?), zuen tolerantziarekin itxitako Sigma, Euskalduna, Labe Garaiak..., eta, azkenik, zuen bala-toleranteak (Rosa Zarrari galdetu, edota Santiri, edo KAZETARI ziren Galdeano eta Muguruzari..., hori bai jakina, BAKEZALEOK TIRO EGI-TEN DUZUENEAN PAKETZERA TIRATZEN DUZUE).

Azkenik, bi gauza. Neure erantzuna hor utziko diat, eztabaida antzuetan sartzeko prest ez bainagok. Bukatzeko aholku txiki bat, Witgensteinek bere "Tractatus"ean idatzi zuen bezala: "jakiten ez denaz, hobe ez hitz egi-tea".

PD: Jaio, Iriondo eta Alberdi elgoi-bartarrak 4.000 egun bahiturik, tole-rantziaren erreinuan. Amen.

Arnaldo Otegi

Herriko Institutuaren oharra

Joan zen asteko BARRENen kexen atalean esaten zenez Institutuko zenbait ikasle poteekin dirua biltzen ibili ziren "Gazteen bidaia" antolatzen. Ohar honen bidez Institutuko guraso eta zuzendaritzak ere adierazi nahi du ez dela hori motibo horretarako dirua biltzeko biderik egokiena. Dirua lortu nahi duenak irudimena eta lana erabili behar ditu horretarako. Bestalde, Gazte bidaia hori ez du Institutuak antolatu eta ez du babesten ere.

Institutuko gurasoak eta zuzendaritza

HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK





Aste honetako erretratua **Fausto Vitores**ek lagatakoa da. Fausto CORREOko berriemate edo korrespontsala izan zen urte askoan eta futboleko erretratuak laga dizkigu.

Goiko erretratuari buruzko informazioa jasotzeko Juan Mari Egurenekin egon gara eta, berak esan digunez, 70-71 denboraldikoa da. Erregionalean jokatzen zuen orduan Elgoibarrek eta Tolosa, Anaitasuna eta Mutriku izaten ziren kontrariorik gogorrenak.

Juan Marik esan digunez, oso jende gazteak osatzen zuen orduko taldea, gehientsuenek 19-20 zituzten.

Gainera, bi izan ezik, Mendikute Mendarokoa eta Vitores Eibarkoa, beste guztiak elgoibatarrak dira.

Entrenatzailea zein zen ez du ondo gogoratzen Egurenek, baina **Luis Fernando Astigarraga** izan zitekeela uste du.

Ikus dezagun zeintzuek osatzen zuten partidu hartako hamaikakoa:

Tente, ezkerretik hasita: **Angel Etxabe, J.M. Arriaga, Nicolas Etxabe, Juan M. Eguren, Agustin Inza** eta **Jose M. Urkiri "Lasa"**.

Makurtuta: **J. Luis Arregi "Planti", Luis M. Riaño, Pedro Mendikute, Angel Silva** eta **Vitores**.

 **OIERKI IGONGAILUAK**
Urrutira deitu gabe bertakook segiduan konponduko dizugu igongailua
☎ (943) 11 35 15 ● 📠 ABERIAK (943) 11 35 15
Bista Eder, 11 (sotanoa) ● 20600 EIBAR

 **EGONDO, s.a.l.**
METALEZKO ERAIKUNTZAK
KALDERERIA LANAK OROKORREAN
Olasope kalea 3. blokea ☎ 74 34 08-04 FAX 74 34 08

Bizitzari itsu-itsuan aurre

Begiak itxi. Eta horrela eutsi bost minutuz. Iluna, beltza. Eta berriz ere irekitzean, milaka kolorez, tonalitatez jantziriko errealtatea gure inguruan. Badira, begiak ireki arren, iluntasunari argia ipintzerik ez dutenak. Itsuak direnak. Halere, horietako askok, askoz kolore argiagoz ikusten dute beraien bizitza ikusmena bete-betean dutenek baino.

Dolores Triguerok Miopia Magna du jaio zenetik. Urteak pasa ahala, ikusmena galduz doa poliki-poliki. Gaur egun Doloresek duen minusbalia %88koa da. Orain urte batzuk begi batetik operatu zuten, “horri eskerrak, ikusmen apur bat berreskuratzea lortu dut eta orain beste begian ere beste horrenbeste egiteko-tan nabil”. Madalako ONCEn kioskuan egiten du lan. Duela aste batzuk 50 milioi banatu zituen, “jende gehiago hurreratzen da, zorteak berriz ere hemen joko duen esperantzan edo”.

Erundina Rogel mediku baten negligerentziagatik da itsua duela 30 urtetik, “beste zerbait nuela eta, tratamendu bat jarri zidaten. Demaseko infekzioa sortu zitzaidan eta akabo”.

Juan Mugerzaren kasuan, berriz, sei hilabete zituela erpes



Juan Mugerzak brailea irakurtzen daki.

bat izan zuen begian eta ikusmen piskat galdu zuen, beranduago glaukoma izan eta erabat itsu geratu zen. “Begi batetik piskat ikusten naban lehen eta horri eskerrak koloriak adibidez badakit nolakuak dian”.

Aldaketak

Beste hainbat egoeratan bezala, pertsona hauek iluntasunean edo itzalean bizitzera ohitu beharra izan zuten, “traumarik gabe. Niretzat ez zen arazo handiegia izan. Senarrak asko lagundu zidan eta berehala ohitu nintzen”, aitortu digu Erundinak. Juanek Sabadellen ikastaro bat egin zuen “hiru hilabete pasatu nitxun eta han gauza asko erakutsi zien, bastoiakin ibiltzen, brailea irakurtzen, ukimena garatzen, usaimena, soinua... Ariketak itxen genitxun. Toki baten lagatzen gintxutzen eta handik aurrera zeozer topatu bihar gendun. Arrandegixak topatzeko ez naban problemarik eukitzen!!!”.

Dolores jostuna izan zen, “akademia batean ikasi nuen eta kanporako ezezik, niretzat ere makina bat arropa egin izan ditut. Orain, ezin”. Zinera joatea ere zaila egiten zaio Doloresi, “pantaila handia izan arren, dena borroso ikusten dut, batez ere gaur egungo pelikulak, hain dira ilunak!”.

MARIO ABARRATEGI

Mariok 78 urte ditu eta itsu dago duela 10 urtetik. Bere kasuan ere, Erundinarenean bezala, mediku bat izan zen erruduna, “kataratsetik operatu ninduten arrazoirik gabe, eta itsu geratu nitzan”. Halere, umorerik ez du galdu, “zertarako estutuko naiz? zertarako arduratuko? Nere ingurukuak sufriarazteko? Nahixao dot nik konforme eta pozik bizitzia, hartara, inguruan ere zoriona egongo da”. Beti gustatu izan zaio irakurtzea, orain ezin du, baina Mari Karmenek, ilobak, Mariok eskatutako guztia irakurtzen dio, “lehenguan ‘Muy interesante’n ipintzen zaban itsuentzat esperimentatzen ari dila telebisio moduko zeozer. Zerebruakin konektatu eta berriz ere ikustia lortuko genduke. Eulixekin ari dia probatzen. Itxuria berdia, gorrixa eta urdina sartzia nahi ditzue. Baina, itsu batentzat, zuri-beltzian ikusitxa ere, nahikua pozgarrixa da!”. Getariako etxeak izan ziren ikusi zituen azken gauzak eta bere hurrengo ilusioa, “Bilboko metruan ibiltzia” da. Hori behintzat lortuko du, ziur!



eginez

Oroimenean

Beraien kabuz gauza gehienak egiteko gai dira baina Juanen hitzetan “kalera ateratzeko norbaiten laguntza behar dut. Elgoibarren kaleak oso gaizki daude itsuentzat, espaloirik gabe”. Askotan entzun izan dugu itsuek beste zentzumenak normalek baino gehiago gartzten dituztela eta hala dirudi dela, “nik pertsonak usainagatik eta arnasagatik ezagutzen ditxut” esan digu Juanek. Era batera edo bestera, iluntasunean bizi diren arren, hauek ere badute koketeria puntu bat. Erundina, adibidez, gaztetan oso ederra omen zen eta gaur egun ere, “kalera atera behar dudanean, ni neu orrazten naiz, margotu...”. Arropa erostera ere bera joaten da, “telak nolakoak diren hartzen dut kontuan, gorputzean eroso ditudan ala ez. Koloreak galdetu eta listo”. Begietatik ikusterik ez duten arren, “barrura begiratzuz” imagina dezaketena, “gogoratzuz”. Atzera begiratzean, oroitzapen asko ditu Erundinak eta horien guztien argazkiak bere memorian gordeak ditu. Jakin dugunez, dantzazale amorratua izan da, eta da, “orain gutxi, bilobarrekin aritu nintzen etxean tango bat dantzatzen”. Doloresek aitortu digunez, “gutxi ikusi arren”,



Goian Dolres Trigeros. Doloresek % 88ko minusbalia dauka ikusmenean.

Behean Erusndina Rogel. Bera mediku baten negliñigentziagatik itsu geratu zen orain 30 urte.



berak ere badu gustu berezirik gizon kontuan, “ni senarraren izaeraz maitemindu nintzen, baina ez pentsa fijatzen ez naizenik! Paul Newman eta Robert Redford oso ondo daudela nik ere antzematen dut”.

Bizitzaren kolorea

Miraririk egitea posible balitz, guk ikusmena itzuliko genieke, ordu batez besterik ez bada ere. Doloresek, “ispilu aurrean jarri eta nere irudia bete-betean” ikusi nahi luke eta Erundinak “seme-alaben eta biloben aurpegia”. Hirurek ere, beraien iluntasunean, ikusmena dugun askok baino kolore garbiagoak dituzte bizitzari begiratzeko orduan. Juanek bizitzari kolore bat ematekotan, “berdia, espe-rantzian koloria” emango lioke.



CONSUELO BONAL

Arazo genetiko bat dela eta, orain hamar urte, 41 urte zituela, hasi zen Consuelo ikusmena galtzen. Hiru urtera ez zituen itzalak baino ikusten, “koloreak izan ziren belzten hasi ziren lehen gauzak”. Kolore bakar bat aukeratu behar balu, “zenbat eta zuriagoa hobea, nahikoa beltza da bizitza bera eta” erantzun digu. “Askatasuna” kendu dio itsu izateak, “mugitzeko askatasuna” baina, oraindik orain, badu lehendik geratu zaizkon zenbait “mania”, “orrazteko, adibidez, derrigorrez ispilura begira egon behar naiz”.



M.VICTORIA GONZALEZ

37 urtetako emakume honek miopia dauka, operatu egin zuten eta ondoren “desprendimiento de retina” izan zuen. M.Victoriak ikusten du, “mugatua daukat oso, betaurrekorik gabe oso borroso ikusten dut, baina gutxienez estabilizatua daukat eta gehituko ez zaidala uste dut”. Erundina bere ama da eta harekin denbora asko ematen du, “kalera nirekin ateratzen da”. Itsua izatea, “izugarria izango litzateke, ohitu arte behintzat. Bestela konturatu zaitez zeinen gaizki pasatzen dugun argia joaten den guztietan! Amak barre asko egiten du horrelakoetan gure kontura”.

Telefonoa, eguneroko tresna

Hain sarritan erabiltzen dugun aparailu txiki hau guztiz instituzionalizatu da, etxean ia ezinbesteko eta lantokietan derrigorrezko tresna bihurtu arte.

Izan ere, ugari dira keinu arrunt baten bidez (zenbaki batzuk markatuz) eskura ditugun erabilerak eta ase ditzakegun beharrak: lagunen etxeetan sar gaitezke, urrutikoekin hitzegin dezakegu, kontaktuak, enkarguak, erosketak, zenbait zerbitzutarako ordua edo txanda eskatu...

Dudarik gabe, telefonoa fenomeno sozial bihurtu da gaur egun. Sarritan honelakoak entzun eta erabiltzen ditugu:

“dazu”, “zerbait jakitean abisatu”, “nora deituko dizut?”, “jakinaraziko diot”... Halakoetan bitartekari nagusia telefonoa da, eta bere harrietatik hitz eta mezu anitz barreiatzen da.

Hala ere, telefonoak badu alde txarrik, bestelako aurrerapenak bezalaxe gure erosotasunari laguntzen badio ere: pertsonen arteko komunikazio gizatiarra eragozten du. Telefono harien bidez, edozein ezezagunek geure etxera heltzeko modua du (jakina da telefonoaren bidez eginiko mehatxuak ugariak direla) eta prentsak entzungailu telefoniko

ilegalen berri ere ematen digu maiz.

Laburbiltzeko, telefonoa gure bizimoduan eguneroko tresna bihurtu dela esan liteke: urte gutxitan geureganatu ditugu berarekin dakartzan abantailak. Baina ezin ahantz dezakegu telefono hariak jendea harboltzeaz gain, besteekiko harremanak hoztu ere egiten dituela.

Oharra: Honako lerro hauek idazteko enkargua ere telefonoz egin zidaten.



AGURTZANE BILBATUA

Pedro Muguruza 5
Tel 74 08 06
20870 ELGOIBAR

okindegia eta gozotegia

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35
ELGOIBAR

Ohituko al zinateke telefonorik gabe?



MARISOL URRUTIA
34 urte, etxekoandrea

Ez daukat telefonorik eta ez dot faltan botatzen. Etxian telefonoripe bizi leike baina biharrerako gauza inportantia da. Gero ipintzeko esperantzia dakagu.



ANASTASIO ETXANIZ
60 urte, jubilatua

Gaiztua izango litzake behin akostunbrau ezker. Laguneri deitzeko, medikuari deitzeko... Askok erretzen dau komunikaziua.



JOSEFA RUIZ
49 urte, etxekoandrea

Sekula ez dugu eduki etxean eta ondo moldatu izan gara. Orain, semeak hazten ari dira eta gaur egun ia ezinbestekoa denez, ipintzekotan gaude.



SANTI ARRESE
36 urte, kamareroa

Ez dot uste. Orain 17 urte jarri gendun telefonua etxian eta oin kentzia zaila izango litzake. Errekauek lagatzeko edo beste edozertarako bihar da.



MIREN ZUBIAURRE
60 urte, etxekoandrea

Niretzat beharrezkoa da, telefonorik gabe bizitzea oso gogorra egingo litzaidake nahiz eta askotan garrantzirik gabeko gauzetarako erabili.



SANTIAGO CARRASCOSA
54 urte, torneroa

Zaila egiten zait imaginatzea. Etxean sei gara, gazte asko daude eta telefonoa asko erabiltzen da. Larrialdietarako ere ezinbesteko elementua da.



**ETXE ASEGURO BAT
ETXE BAKOITZERAKO**

Pedro Muguruza 4 behea. ELGOIBAR. ☎ 74 26 99

BOUTIQUE DEL PAN

Enpanadak Enbutidoak
Baserriko ogia Boileria

San Bartolome, 6 / B. Ecenarro, 1 ☎ 74 33 92

KEMEN Belardenda

MEDIKU NATURISTA-AKUPUNTURA-PISUAREN
ZAINKETARAKO TERAPIA-MASAJEA ETA
REFLEXOTERAPIA

San Bartolome 25. Tel: 74 40 31

■ Udal administrari posturako oinarriak

Udal Kultur eta Kirol Zerbitzuan lan egiteko administrari laguntzaile posturako oinarriak Udaletxeko idazkaritzan jaso daitezke. Datorren astean Gipuzkoako Boletin Ofizialean deialdia argitaratzen denetik hogeit eguneko epearen barruan aurkeztu ahal izango dituzte interesatuek eskaerak Udaletxeko idazkaritzan.

■ PNVren jarrera salatu du Herri Batasunak

HBk, duela bi ostiraleko plenoan izan zuen jarrera, honela justifikatu zuen pasa den astean emandako prentsaurrekoan: “PNVk gainontzeko alderdiok ez genuen informazio zuen, eta beraz, informazio nahikoa izan gabe zinegotziok erabaki bat hartzea nahi izan zuen. Ziur gaude Patzuergoaren plana PNVren eskuetan dagoela”. HBko zinegotziek Patzuergoko iturriak kontsultatu zituzten eta haien arabera proiektua bi aste barru herri guztietara bidaliko dute, “beraz, ez dugu ulertzen zergatik ez zuen PNVk alderdi guztiek informazio hori eduki arte itxoin gai horri buruzko erabakia hartzeko”. Era berean, errekaeren mozketan egin aurretik, ingurugiro azterketa egin beharko litzatekeela uste dute HBkoek, Aldundiak errekei buruz egindako txostenean “meandroak ez moztea eta edozein erreka obra bat egin aurretik ingurugiro azterketa egitea gomendatzen baitu. Ez gaude herriarentzat hain garrantzitsuak diren obrei buruzko erabakiak horren arin hartzeko prest”. Lur industrialaren gaiaren inguruan, Eusko Jaurlaritzak Sigmako pabilioiak enbargatuko balitu, hortik sortuko litzatekeen lur industrial publikoaren onurak aprobeztatzearan alde azaldu ziren HBko zinegotziak. Bestalde, Gillerimo Garetak HBren bi mozio plenoko gai ordetik kanpo utzi zituela salatu zuten, “legaltasunari bizkarra emanez gure mozioak ez zituen plenoan sartu, berak hala nahi izan zuelako, eta ezohiko beste pleno batean eztabaidatuko zirela esan zuen”.

Malaysiako enbaxadorearen bisita izan dute IMHn

Malaysiak Madrilen duen enbaxadako buruak, Dato’Syed Norulzaman Syed Karamulzaban izenekoak eta Wam Jaafar Mahmud kantzileriako buruak Erreminta Makinaren Institutura bisitaldia egin zuten pasa den astean. Asiako herrialde horretako diplomatikoak Elgoibarrera espreski etorri ziren IMHko instalakuntzak gertutik ezagutzeko. IMHren gestioa eta hezkuntza ereduaren eta erreminta makinaren sektorearekin duen harremanen nondik-norakoak jasot-

zea izan zen enbaxadorearen bisitaren helburua.

Azken aldiak sekula baino bisita gehiago izan dituzte IMHn Indonesia, Txina eta Malaysiako enpresari, agintari eta ikasleen aldetik. Kontuan hartu behar da Asiako hegoekialdeko herrialde hauek direla munduan ekonomiko-ki gehien hazten ari direnak. Hortaz, formazio teknikoaren arloan elkarlanean dihardute Erreminta Makinaren Institutua eta Asiako herrialde hauek.



CONSTAN NUÑEZ

■ Elgoibarko fundazioaren logotipo lehiaketa

Datorren urtean Elgoibarren fundazioaren 650. urteurrena dela-eta, Elgoibarko Udalak logotipo lehiaketa antolatu du. Gaia fundazioaren 650. urteurrena izango da, bai banaka bai taldeka, nahi duten guztiek parte hartu ahal izango dutelarik. Teknika librean egindako lan orijinalak soilik onartuko dira A4 formatoan. Euskaraz zein gaztelaniaz egin ahal izango dira lanak. Aurkezteko azken eguna abenduaren 2a izango da. Lanak aurkezteko edo xehetasun gehiago jasotzeko Udala Kultur Zerbitzura zuzendu edo 74 21 58 zenbakira deitu.

■ Begirale ikastaroa Eibarren

Eibarko Astixa taldeak Begirale Titulua ateratzeko 200 orduko ikastaroa antolatu du azaroaren 18tik maiatzaren 25era bitartean. Larunbat eta igande goizetan emango dira klaseak Eibarko Unibertsitate Laboralaren egoitzan. Izena emateko azken eguna hilaren 14a da eta matrikularen zenbatekoa 40.000 pta.koa. Izena emateko goizez 8etatik 1era eta arratsaldetan 3,30etatik 6etara bitartean deitu Astixa taldearen 10 62 31ra edo Elgoibarko Izarraren 74 16 26 zenbakira.



Olagarro ikusgarri hau bezalako beste sei harrapatu zituen Antonio Fernandez elgoibartarrak Mutrikuko hondartzan iragan asteartean. Argazkiko olagarro hau zazpien artetik handiena da, 5 kilo pisatzen ditu eta 1,35 metroko altuera dauka. Hainbeste olagarroekin zer egingo zuen galdetu genion Antoniori, “jan, dudarik ez! Kongelatu eta piskana-piskana jaten joan”.

Angel Etxabek bost uso eder hauek ehizatu zituen pasa den ostegun goizean Madarixa inguruan. Ehiztariak esan digunez “ez da oso normala Madarixan paseko usua ehizatzea, birigarrua eta beste txori batzuk bai, baina usua ez. Lainua oso sartuta zauan eta horregatik sartu zan usua hainbeste”. Uso bakoitzak kilo erdiko pisua zeukala kalkulatu zuen Angelek, “gisatuta jateko ederra izaten da usua”.



■ PP, zuzeneko trenak kentzearen aurka

PP alderdia Eusko Trenbideak enpresak Bilbo-Donostia eta Donostia-Bilbo ibilbidea zuzenean egiten duten lineak kentzeko asmoaren aurka agertu zen azken plenoan. Juan Carlos Avian PPKideak Eusko Trenbidearen aurkako mozioa urriko 28ko plenoan onartzea eskatu zuen arren, azkenean ez zen plenoan eztaibatzeko onartu. Avianen esanetan, zuzeneko lineak kentzen badituzte, “elgoibartarrek transbordo ugari egin beharko dituzte Donostiara edo Bilbora joan nahi badute”. Tren lineak honela zatituko ditu Eusko Trenbideak-ek: Bilbo-Ermua, Ermua-Eibar, Ermua-Deba eta Zumaia-Donostia. “Tren zerbitzuen arteko konexio faltagatik ordu-bete ere itxoin beharko dute aurrerantzean Donostiara edo Bilbora joan nahi duten elgoibartarrek”.

■ Lana bilatzeko ikastaroa Andraizeren eskutik

Andraize emakume taldeak “Lana bilatzeko teknikei” buruzko ikastaroa antolatu du. Ikastaroa Durangoko Sartu elkarteak emango du, emakumei zuzendua dago eta doan izango da. Hainbat gai aztertuko dira, besteak beste, lan merkatuan informazioa nola bilatu, gutunak eta Curriculum Vitae-a nola idatzi, elkarrizketa ezberdinen ezagupena, test-ak erantzuteko arauak, motibazioa mantentzeko eta zapuzketa ekiditeko hainbat pautak, hitzegiteko trebetasuna nola garatu eta abar. Ikastaroa azaroaren 28an hasiko da eta abenduaren 20ra arte luzatuko, astean bi arratsaldetan izango delarik. Interesatuak izena eta telefonoa bidali beharko dute 168 posta kutxa zenbakira. Kopurua murriztua denez, lehenbailehen egitea komeni da.

■ Intsumituen aldeko plataformaren aurkezpena

Datorren asteartean, hilak 14, intsumituen aldeko plataformaren aurkezpena egingo du Talde Antimilitaristak Kultur Etxean. Arratsaldeko 7,30etan prentsaurrea emango dute Antimiliek intsumisoei laguntza eskaintzeko eratu duten plataformaren inguruan.

■ Galiziarren Gaztainen festa Urasandin

Galiza Etxeak Festa Do Magosto ospatuko du igandean. Urasandin egoitzaren aurrean 6ak aldera 500 kilo gaztaina erreko dituzte eta 600 litro ardo banatuko hara urreratzen diren guztien artean. Ohi denez Chaves tiraldiak ere izango dira.

Antonio Azpilikueta:

"Argazkilaritzan ere xenofobia handia dago"

Elgoibartar guztiontzat ezaguna den Antonio Azpilikueta argazkilaria dugu gaur gure artean. Berrogei urte inguru argazki kamararekin ibili ondoren, 1996ko martxoan Antoniok

prestatutako lehen erakusketa ikusteko aukera izango dugu herritar guztiok. Gaur, orri honetan, geldirik egon ezin daitekeen gizon honen zaletasun eta alde ezberdinak ezagutuko ditugu.

- Noiztik argazki kamararekin?


- Hamazortzi urte nituela hasi nintzen argazkilaritzan, beraz, betidanik izan dut zaletasuna. Niretzat argazkilaritza hobby bat da nahiz eta legalizata egon. Argazkilaritzan eman nituen lehenengo pausoak ez ziren bat ere errazak izan. Diktadura garaian oso zaila zen legalizatzeko paperak lortzea; hala eta guztiz nik lortu niuen. Legalizazioa lortu eta hortik denbora gutxira elizan dokumentazio paperak eskatu zizkidaten baina nik, paper guztiak ondo eduki arren ez nizkien erakutsi.

- Inoiz pentsatu al duzu argazkilaritzan lanbide modura aritzea?

- Hasieran bai baina laster laga nuen profesional moduan hasteko asmoa, konpetentzia handia zegoelako. Gainera xenofobia handia zegoen. Hau egia da, lan askotan esan didate gauza asko txantxetan... baina entzun eta tragatu egin behar izan ditut. Orain ez zait inporta argazkilaritzaz ez naizelako bizi baina...

- Zer duzu gustuko, argazkilaritza zuri-beltzean ala koloretan?

- Lanerako nahiago dut kolorea; nire lanen



"Behin elizan dokumentazio paperak eskatu zizkidaten, baina nik ez nizkien erakutsi"

%90 koloretan aterako argazkiak baitira. Baina argazki politagoak dira zuri-beltzekoak.

- Nori eta non aterako zenioke zure ametsak argazkia?

- Nahiago ditut paisaiak pertsonak baino. Behin pentsatu nuen Urtaini ateratzea baina oso zaila zen berarengana hurbiltzea. Urtaini ateratako argazkiak ikusten nituen guztietan berari ateratzeko gogo handia sartzen zitzaidan baina beste pertsonarik ez dut gogoratzen.

- Erakusketa bat prestatu

zen ari zara, noizko?

- Hurrengo urteko martxoan edo apirilean ikusi ahal izango duzue prestatu dudana erakusketa. Aukeratu dudana gaia hau da: 1968tik hona Elgoibarren desagertu diren baserriak.

- Argazkilaritzaz aparte, ba al duzu beste zaletasunik?

- Askok. Nire afizioa geldirik ez egotea da. Ehiza asko gustatzen zait, baratzean ere banabil eta fruitarbolak eta erleak ere baditut. Asteburuak ehizan edo baratzean lanean ematen

ditut, gauza da okupatua egotea.

- Zer eduki behar du pertsona batek erleen artean ibiltzeko?

- Balore handia eta erleak maitatzea. Hala eta guztiz aurpegirako estalki bat behar da. Askotan estalkirik gabe ibiltzen naiz. Erleekin ibiltzen dena laster konturatzen da zein egunetan egingo dizuten zizt eta noiz ez; eguraldiari begirada bat botatzarekin nahikoa da erleak nola dauden jakiteko.


- Ezti ona prestatzeko sekreturik?

- Eztia erleek prestatzen dute. Hor ez dago sekreturik. Ezti ona egiten baduzu adulteratu ez duzula da. Eztia, nire etxean behintzat, erlauntzetik hartu eta ontzira sartzen dugu dagoen moduan. Zaporea hemendik Debara ere aldatu egin daiteke baina hori loreen gauza da.

- Atera dituzun argazkietatik, zeinekin geratzen zara?

- Askorekin, gehienak egunsentiak dira. Pertsonak ez, batez ere paisaiekin eta egunsentiekin geratzen naiz. Pertsonak atera izan ditut karneterako argazkietan edo ezkontza batera joan izan naizenean.

JAVI LEÓN



O.H.O.KO IKASLEEKIN EGINDAKO 17. GEHIGARRIA



Guk osasunari buruzko programa bat osatu genuen. Lan asko egin eta gero guri egokitu zitzaigun saria. Autobusetik Euro Disney ikustean gure ametsa egia bihurtu zela konturatu ginen. Heldu ginenean maletak utzi genituen eta parkera joan ginen. Han, dena zen polita, bost

zatitan banatua zegoen. Pertsonaiak ikusi genituen eta ez gara hasiko atrakzioak esaten zeren bestela ez baitugu inoiz amaituko. Azkenean Paris ikusi genuen eta gero tristuraz beterik itzuli ginen Elgoibarrera".
Ainara De Pedro, Guruzne Urkidi eta Aitor Arrieta

Txistea

Ez dut batek esaten c... koari:
- Niago irabaztea... ere senarrak
- ...rtzen du etxera... eak?
- ...e lagatzen.
- ...k?
- ...ak garbitzen d...

Jakitunen eskutik

Sukarra eta haurrak

Sukarra dugula esaten dugu gorputzeko tenperatura normala (37 ° C.) baino altuagoa denean. Gaixotasunaren sintomarik zaharretarikoa da, mundu mailan ezaguna dena. Termometro Klinikoa 1868an sortu zen Wunderlich-eko lanei esker.

Ospitaletik kanpo pediatrek izaten dituzten kontsulta gehienak haurren sukarragatik dira eta normalean haurrek hiru urtetik behera izaten dute. Sukarra deitzen diogu termometroa besazpian jarrita gorputzaren tenperatura 38°C.koa denean edo, toki berean, 37-38º bitarteko dezimak ematen direnean.

Halere, kontuan izan behar da tenperatura non hartzten den, hau da, besazpian, ahonan, inglean edo ipurtzuloan. Horrela bada, besazpian 35,8°C.ko tenperatura ematea normala da eta ipurtzuloan 37,8 °C. Adinaren arabera ere bada go aldaketarik, jai berriak, adibidez, oso sentiberak dira ingurugiroko tenperaturara. Eguneko zein momentu den ere kontuan hartu behar da, zenbat eta beranduago izan, tenperatura 1º C. altuagoa izan daiteke eta; goizeko 2ak eta 4ak bitartean, berriz, minimoa ematen da. Ariketa fisiko asko egiteak, haurdun egoteak, hilekoak eta jatordu

koipetsuek ere tenperatura igoarazten dute.

Sukarra normalean ez da txarra izaten. Prozesu metabolikoak bizkortzen ditu, oxigenoaren kontsumoa eta gastu kardiakoa gehitzen du eta beste hainbat sintomaz lagundua joaten da: egonezin orokorra, zefalea, hotzikarak, zurbildura, izerdia, mina artikulazioetan, takikardiak eta abar.

Halere, ez dugu ahaztu behar hainbat gaixotasun larrik ez dutela sukarrak sortzen.

Sukarra izaten den kasuetan medikuarengana joatea komeni den arren, hona hemen hainbat aholku:

- Tenperatura igo dezakeen guztia ekidin: arropa asko, mantak, giro tenperatura altua...

- Likido asko hartzea komeni da, sukarrak ur galera sortzen baitu.

- Ur epeleko bainuak oso egokiak dira bai eta konpresa eta trapu hezeak jartzea ere (beti urez bustiaz, ez alkoholez) eta tenperatura poliki-poliki jaitsi behar da, ez derrepentean.

Hau guztia egin eta gero, beharrezko informazioa jaso eta antitermikoak erabiltzea izango litzateke hurrengo pausoa.



LOURDES ARANBURU
Pediatra

Zer iritzi daukazufama.....ri buruz?



Jonba Etxeberria protagonista handia da eta fama bikaina du. Eta San Roke kalean egoten da.

IRAITZ SOLABARRIETA, 8 urte



Nik uste dut ondo dagoela bestela mundua ez litzateke izango dibertigarria.

SANDRA MONTES, 7 urte



Miguel Indurain oso famatua da. Fama edukitzeko talentua behar duzu.

IVAN CONDE, 7 urte.




Eriq Mepf lmwg
13 wtvg

Galde debalde

1. Nor aterako zenuke dantzara?
2. Biberioia ala txupetia?
3. Zerk lotsatzen zaitu?
4. Gustatzen zaizun usainen bat?
5. Ipin iezaizozu beste izen bat Elgoibarri.
6. Txokolate zuria ala beltza?
7. Pertsonaiarik gustukoena?
8. Zure aurrean egonez gero, zer esango zenioke?
9. Nori idatziko zenioke maitasun eskutitz bat?
10. Eta zer jarriko zenioke?

1. Claudia Schiffer.
2. Umetan txupetia nahixao naban.
3. Ezerk ez; ez dakit zer dan.
4. Okelarena, usaintzea eta jatea.
5. Elgoibar city.
6. Bixak gustatzen jataz.
7. Miguel Indurain.
8. Nere etxera etortzeko bazkaltzera.
9. Gustatzen zaidan neskarri.
10. Hori sekretua da.



Itxvzq Mepf lmwg
7 wtvg

1. Nere ama, trikitixa bat eixtera.
2. Biberioia esniakin.
3. Mutil batekin dantza eixiak.
4. Larrosarena.
5. Deba, asko gustatzen zait eta.
6. Beltza.
7. Ainhoa, nere gelako lagun bat.
8. Ea larrosak gustatzen zaizkion.
9. Gorkari, baina ez zait gustatzen, eh!
10. Nirekin etortzeko jolastera.

Zer da... *barrea* ?

OIER DUBIO 11 wtvg



"Norbait zoriontsu denean barre asko egiten du zeren barreak zoriona ekartzen du. Ez beti, baina gehienetan."

JESSICA BARBERO 10 wtvg



"Pozik egoten banaiz eta pailazo bat zirkoan tontakeriak egiten hasten bada, barre egiten dut."

MARIA BILBATUA 10 wtvg



"Poza erakusteko espresio bat da. Jendeari gehien gustatzen zaion espresioa."

VANESSA DAMOS 12 wtvg



"Gauza bat oso polita dena eta tripan kili-kili egiten dizuna. Batzuetan malkoak ateratzen zaizkizu."

LEIRE DEDEZ 10 wtvg



"Barrea oso txarra da zeren batzuek oso gaizki dituzte haginak eta hortzak eta oso itsusiak ikusten ditugu barre egitean."

MIKEL RODRIGUEZ 12 wtvg



"Ja, ja, ja... Hori da barrea."

Denborapasak: ezetz asmatu!

1. Nor da elgoibartar hau?



2. Zer galdetu diegu beraiek erantzun hau emateko?



IGOR FERNANDEZ
12 urte
"El rompecabezas", Juanma Iturriagak bezala. Lehiaketak asko gustatzen zaizkit, jendeak oso ondo pasatzen duelako eta aurkezleak ere bai. Nik, umorearekin aurkeztuko nuke, jendeari barrea ateratzeko.


IZASKUN ESNAOLA
6 urte
Super Bat aukeratuko naban oso polita da eta. Marrazki bizidunak jarriko nituzke, Dragoi Bola. Gona motz arrosa bat eramango nuke, leotardo gorriak eta jertse zuria. Ilea luzea eta solte, orain bezala.



3. Asmakizunak:

- Irtefen zure ahotik izan nintzen lehena, beste guztien aurretik zerrendan nago aurrena. Zer da?.....
- Erdian luzeena bi motzagoen artean, bazter batean txikiena eta potoloena bestean. Zer da?.....
- Printze eta erregina artean bilatu eta aurkituko nauzu, gezurrak ez nauka bat ere egiak bat behintzat badu. Zer da?.....

4. Aurki itzazu errepikaturiko tresnak:



Erantzunak 1. Itaki! Raigoso 2. Telebistako zein programa aurkeztu nahi zenuke? 3. A hizkia, eskua eta I hizkia

Ana Maria GuillenZezenbide
auto-eskolakoa

- **Zenbat denbora daramazu lan honetan?** ▶ Bi hilabete.
- **Lan hau izango ez bazenu, beste zer gustatuko litzaizuke?**
▶ Ni ileapaintzailea naiz eta asko gustatzen zait.
- **Zuk gidatzea ala gidaria edukitzea nahiago?**
▶ Nik gidatzen dudanean ziurrago sentitzen naiz.
- **Gasolina ala diesela?** ▶ Diesela, merkeagoa da eta.
- **Zenbatgarrenean atera zenuen gidatzeko baimena?**
▶ Lehenengoan.
- **Zenbatean dago ordua?** ▶ 3850 pta. gehi BEZa.
- **Zenbat ordu sartu behar dira bataz beste?**
▶ Pertsona bakoitzaren arabera da baina ez dago minimorik.
- **Bidaiazteko garraioaren bat?** ▶ Hegazkina.
- **Norekin ez zinateke joango autoan?**
▶ Oso mozkortuta doan inorekin ere ez.
- **Bizitzako zerk frenatzen zaitu?**
▶ Gauzak gaizki egingo ditudan beldur izateak.
- **Zeren aurrean eta noiz sartu zenuen atzeranzko martxa?**
▶ Bizitzan askotan egiten duzu atzerantz. Gauza asko egin nahi zenituzke baina barruko zerbaitek ezetz esaten dizu eta azkenean ez duzu ezer egiten.
- **Zenbat ordu egiten duzu lo?** ▶ 8 edo 9 ordu, oso lotia naiz.
- **“Edaten baduzu ez gidatu”.** ▶ Horixe! oso argi daukat.
- **Alkoholemia froga egitearen alde ala aurka?**
▶ Alde. Kontrolik egingo ez balira, imagina ezazu zer-nolako desfaseak egongo lirartekeen larunbat gauetan.
- **Zein liburu gomendatuko zenuke?** ▶ “El señor de los anillos”.
- **Auto marka bat?** ▶ Peugeot.
- **Zinea ala antzerkia?** ▶ Zinea.
- **Zer pasatuko zenuke abiadura handiarekin?** ▶ Kanposantu bat.
- **Isun asko jarri dizkizute?** ▶ Orain arte bat ere ez.
- **Gezur asko esan al dizkiguzu elkarrizketan?** ▶ Ez.

MAITE IRIONDO


**LARUNBAT
ARRATSALDEA**

Larunbat arratsaldez lagunekin irten asteko neke denak ahal den eran husten kaletikan ibili jendea ikusten edo eta tabernan musika entzuten batzuk dantzatzen gaude besteak edaten.

Irtetea kalera ez degu txarrena guztiz alaitzen zaigu gau hortan barrena inoiz ez bukatzea gau hori onena baina hola irteteak hau da dakarrena ohean pasatzea igandea dena.



NEREA ANSOLA



PEDRO PEREZ BERISTAIN
San Roke, 30 behea. ☎ 74 36 52 - 74 27 89
KOMUNITATEA BARRATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA



KAFE TEGIA
74 32 65

XABIER
ILEAPAINDEGIA
*Eskatu
eguna eta ordua*
San Bartolome 13, Tel. 74 19 97

11 hilabeteko iraupena eta 460 milioiko kostua izan du 634 errepidearen konponketak

Sigma eta Maltzaga bitarteko 634 errepide zatian egindako berrikuntza lanen inaugurazio ekitaldi ofiziala izan zen joan den ostiralean. Eguerdiko 12,30etarako iragarrita zegoen ekitaldian, Sigmako langileek, bizi duten egoera larria salatu nahi izan zuten. Ekitaldian parte hartu behar zuten agintarien arreta erakarri nahian, errepidea moztu zuten suzko barrkada batekin.

Ertzantzak trafikoa bideratu, sua itzali eta barrkada garbitu zuenean, Olasoko Industrialdearen parean inaugurazio ekitaldia hasi zen. Udal Txistularien eta Haritz Dantzari Taldekoen ongi-etorri aureskuaren ostean, Roman Sodupe Aldun Nagusiak, Jose Julian Irizar Errepide eta Garraio Sailaren Aldunak eta Guillermo Garate Elgoibarko Alkateak errepidea inauguratu zuten zinta moztuz. Haez gain, ekitaldian parte hartu zuten Antxon Jaime Aldundiko



■ ■ Roman Sodupe Aldun Nagusia zinta moztzeko unean.

Errepide Saileko Zuzendariak, Eibarko Alkateak eta lanak burutu dituen Galdiano enpresako ardurdunak.

Sigmatik Maltzagara bitartean 2.350 metroko idstantzia dago orain. Horrez gain, karrilak eta arzenak berritu dira.

11 hilabete

Lanen zuzendaria izan den Sarasola jaunak 11 hilabetez luzatu diren konponketa lanen nondik-norakoak azaldu zituen. “Lana gogorra izan da. Terrenoaren zailtasunengatik uste baino gehiago kostatu zaigu obra bukatzea. Dena den, lanak burutu diren modua eta azken emaitza erabat arrakastatsua izan dira”. Lehen fasean izan ezik, lanek iraun duten 11 hilabeteetan trafikoa ez da eten. “Trafikoarentzat karril bakarra erabili dugu, eta 2.350 metro izan dira berritu direnak. Horma ugari eraiki behar izan ditugu, 800 metro horma hain zuzen. Sekula ez da eraiki errepide zati hain txikian hainbeste horma metro”. Hormak egiterik ez zegoen lekuetan, 2,80 metro altuerako boladizoak eraiki dira.

Lanen zenbatekoa 460 milio-koa izan da, berritutako kilometro bakoitzak 200 milioiko kostua izan duelarik. Errepidea motzagoa da, “orain askoz lehenago hel daiteke Maltzagara”. Karrilak zabaldu egin dira eta artzenak eraiki eta ibilgailu handiek duten galibo limitazioa 5 metrokoa da orain.



■ ■ Sigmako langileek euren egoera larria salatu nahi izan zuten agintarien aurrean.


Madalako ermita II

- Egurrezko erretaula ere kendu egin behar izan zen, sitsak janda zegoen eta. Gaur egun sagrarioa, gurutzea eta "Milagrosa" Andra Maria daude. Ezkerreko horman, Maria Magdalenaren irudia dago, Borgoinako Felipe eskultoreak landua 1553an.
- Kanpoko aldetik leihoetako goiko parteraino harlanduz egina dago. Gainontzean, zarpeatu gabeko harlagaintzaz egina dago.
- Ermitak oinplano angelu zuzena du eta estalkia lau aldetara da. Ezpataina, harlanduzkoa, epistolaren aldeko harmoran eta fatxadaren erdi aldean kokatua dago. Kanpandorre sinple hau kararrizko erdi puntuko bi arkuz eratua dago kanpaiak babesteko eta bukaera burdinezko gurutze eta iparrorrazak ematen diote.
- Barrutik, nabe bakarreko elizatxoa da. Harmora zarpeatua dago eta matxoiak, atea eta

leihoak harlanduz inguratuak. Sei matxoiak eusten dute sabaia, bi ertz-ganegen bidez antolatua eta erdi puntuko arku fajoi eta formeroetan eutsita dago.

- Sarrerako atea, eskuin aldean eta atzean dago eta dintela kararrizko harlanduz eginda dago, sakristiara eta egoitzarantz doan atea bezala. Fatxada nagusiko eskuin aldean bi leiho daude ardatz baten inguruan. Haundiena goian eta beiratez estalia eta txikiena behean. Hirugarren leihoa atzeko horman dago eta biribila da.
- Garai batean zegoen Malape izeneko atari txikiak nortasuna eman zion Madalari. Haren babesean mugitu ohi ziren hainbat belaunalditan madalatarrak.

PELLO ARRIETA



Mariano Loiola Galdos (1918-1994)



- San Migeleko Sagarraga baserrian jaioa 1918ko urtarrilaren 6an.
- 18 urte zituela gerrak harrapatu zuen. Preso hartu eta 11 hilabete gartzelan eman ondoren, 4 urteko soldaduska eginarazi zioten.
- 26 urterekin Aista baserriko Mariarekin ezkondu zen. Zortzi seme-alaba izan zituzten.
- Garia ereiten zen sasoian, gari-joten ibili ohi zen "trilladora" batekin, baserri baserri, Bizkaia aldean batez ere.
- 1959. urtean, San Migeleko benta erosi zuen, baserriaren lagungarri modura, familia aurrera ateratzeko.
- Elgoibarko Baserriaren Elkarte (EBE), Pentsu Kooperatibaren sortzaileetarikoa bat izan zen.
- Elgoibarko Nekazal Ganbarako lehendakari eta Gipuzkoako Ganbarako Batzordeko bokala izendatu zuten.
- Idi demak zituen gogoko, eta gaztetan ehiza.
- 1994ko ekainaren 27an hil zen.

magu's

ILEAPAINDEGIA
EDERGINTZA


San Roke 6 behea tel. 74 34 91

Cordon, Vilarchao, c.b.

DEKORAZIOA

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK,
SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK,
GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke, 7 behea. Tel. 74 28 74 - 74 05 70



MOTZAK

Atletismoa Mintxetan

Larunbatean, hilak 11, Gipuzkoako Txapelketari dagozkion frogak burutuko dira Mintxetan 10etatik aurrera. Infantilek, alebinek eta kadeteek hartuko dute parte. Bestalde, pasa den astean Mintxeta Atletismo Taldeko 13 elgoibartarrek Zarauzko eskolarteko kros lasterketan parte hartu zuten 95/96 denboraldiari hasiera emanez. Kadete mutiletan Gorka Sanchezek irabazi zuen. Mireia Huidobro eta Ana Etxaniz hirugarren sailkatu ziren, infantiletan eta alebinetan, hurrenez hurren. Txikitxoan mailan, benjaminetan, Unai Etxeberriak ondo merezitako 12. postua eskuratu zuen.

C.D. Elgoibarko jokalaririk ohiei omenaldia

Larunbatean, hilak 11, arratsaldeko Setan Haundik Zallaren aurka jokatu du. Norgehiagoka interesgarria izango da, Haundia lehenengo postuan baitago eta Zalla, berriz, bigarren. Klubaren eguna izango denez, bazkideek sarrera ordaindu beharko dute. Atsedendian C.D. Elgoibar Elkarteko jokalariek antolatuta lau jokalaririk ohi omenduko dituzte. Angel Ibarluzeak, Alberto Ferreirok, Jon Belaustegik eta Carlos Guerreirok taldekide izan direnen eta Klubaren oparia jasoko dute. Beste omenaldirik ere izango da. Hogeitaz arbitro lanetan jardun duen Jose Mari Begiristain omenduko du klubak. Aurten laga dio Begiristainek arbitro izateari eta egun Euskal Herriko Arbitroen Batzorde Teknikoko presidentea da.



Jon Ulibarri:

"Euskadiko selekziara heltzia zan nere metia"

■ **Euskadiko selekziarako hautatu zaituzte.** - Bai, lengo urtian Gipuzkoakora juteko izan nitzan baina txorkatileko ligamentua apurtuta naukan ez esan ziaten beste aukera bat izango nabala.

■ **Espero zenuen?** - Gipuzkoakuan izatia bai, baina Euskadikuan zaila izango zala uste naban. Oso pozik na. Nere metia hori zan. Hortik aurrera oso zaila da.

■ **Onenak egongo zarete bertan?** - Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako 21 jokalaririk deitu digute. Hortik 16 onenak hartzen ditxue, Elgorriaga, Arrate eta El Pilar-ekuk batez ere. Eta gero ekipoa osatzeko probintzietakuk gaude.

■ **Zure kualitateak?** - Alturia, baina horrez gain, bizkortasuna ere inportantia da. Terreno txikixan jokatzeko dogu eta gauza asko euki bihar diaz kontuan. Tirua, lagunak nun dauden kolakauta, desmarkia... Ni ez naiz indartsua, baina kualidade horren falta beste batzukin betetzen da.

■ **Hasieran saskibaloian.** - Eskolarteko jokuetan, lehen ez zauan ekiporik eta. Oin dala hiru urte lagun baten bidez eskubaloian sartu nintzan eta gustura. Hasieran ikasten, bigarren urtian zeure burua kolokatzeko eta aurten gero



eta hobeto.

■ **Zein lekutan jokatzen duzu?**

- Ezker hegalian. Ondo moldatzen naiz hortxe. Inoiz eskuin lateralian ere jokatzen izan dot.

■ **Zer moduz doakizue liga?**

- Hiru partidutik hirurak irabazi ditxugu. Aurten esperantza haundia daukagu Euskal ligara igotzeko, serixo eta ilusio haundixakin gaude. Iaz Gipuzkoako txapeldunorde geratu ginan. Baina etorkizuna zaila da.

■ **Zaletu ona zara?** - Larunbatean jokatzeko dogunian ondoko partiduetan beti gelditzen naiz. Etxian ere eskubaloiko partiduetan ikusten ditxut ideiak hartzeko. Elgoibarko afiziu orain hartzen ari da indarra.

■ **Taldearen kalitate bat?**


- Kontratakia. Eta aurten 3-2-1 defentsa oso efektiboa ertetzen ari zaigu.

■ **Eta akats bat?**

- Atakea. Baina partiduetan jokatu, konpenetratu eta entrenamenduetara joanez lor daiteke hori.

■ **Elgoibarko eskubaloiko talderik onena?** - Kadete neskek. Oso onak diaz.

• Adina: 17
• Jokalaririk bat: Jon Zubiaurre
• Talde bat: Elgorriaga
• Kirol arropa etxe bat: Nike asko gustatzen zait eta Astore ere ondo dao.



Euskadiko Bolo Txapeldunak izan

Boloetan onenak direla erakutsi dute behin eta berriro sanmigeldarrek. Aurten Euskadiko Txapela eskuratu dute laugarren aldiz, taldeka ezezik, binaka eta banaka ere bai. Irabazitako kopak eta txapelak asko dira, lau aldiz Euskadiko txapeldunak izateaz gain, Gipuzkoako txapeldun izan baitira bost aldiz. Honez gain, Angel Ibarluzea Gipuzkoako bolaririk onena izendatu zuten. Areriorik handiena ere txiki geratzen da



■ ■ Euskadiko Txapeldunak. Banaka Jabier Osoro izan da txapelduna (atzean eskuman azkena) eta binaka, Jabier eta Imanol Osoro (ezkerrean lehenengoa).

U rriaren 28an izan zen Eibarko Azolaberri auzoan Euskadiko VI. Txapelketaren azken tiraldia. Aurtengo edizioan San Migel auzokoek dena irabazi dute. Taldeka lehenak izan dira, bigarren postuan geratu ziren soraluzetarrei 27 txirlotako alde atera zieten. Binakako kategorian lehen eta bigarren postuak eskuratu dituzte eta banakako sailean lehen, laugarren, bosgarren, seigarren eta zazpigarren postuak ere beraienez izan dira.

San Migeleko bederatzi auzotarrek hartu zuten parte txapelketan. Bi taldetan banatu ziren, A eta B taldeak. Irabazi ahal izateko erregular-tasuna omen da

inportanteena eta A taldean denak aritu ei ziren polit xamar. A taldea osatzen duten bostak lehen 12en artean sailkatu ziren eta B taldeko bat laugarren izan zen.

Agustin Irusta San Migeleko A taldeko kideak adierazi digunez, "asteburuetan boloetan aritzeko nahikoa da zaletua izatearekin baina txapelketetan parte hartzeko ezinbestekoa da federatua egotea". Udaberriari hasiko den Gipuzkoako Txapelketan

A taldeak hartuko du parte. Gehien jotzen duten lehen bostek baino ez dute A taldean aritzeko aukera izango, hortaz, "piketa" izugarria izaten da sanmigeldarren artean Agustinek esan digu-

SAILKAPENA

■ Taldekako sailkapena:

- 1- San Migel (Elgoibar) 77 txirilo
- 2- Sagar Erreka (Soraluze) 49 txirilo

■ Binakako sailkapena:

- 1- Jabier eta Imanol Osoro (Elgoibar)
- 2- Jose eta Agustin Irusta (Elgoibar)

■ Banakako sailkapena:

- 1- Javier Osoro (Elgoibar)
- 2- Sebastian Aranzabal (Elgeta)

KIROL EMAITZAK

Futbola

UPV 0 - Haundi 1
Trintxerpe 2 - 1. erregionala 1
Elgoibar 2 - Zumaia 2 (Jubenilak)
Elgoibar 9 - Tolosa 0 (Kadeteak)
Antiguoko 10 - Elgoibar 1 (Infantilak)
Hondarribi 0 - Elgoibar 6 (Neskek)

Areto Futbola

Elgoibar F.S. 5 - Hosfrinor 4 (1. maila)
Elgoibar F.S. 7 - C. Extremeño 2 (2. maila)

Saskibaloia

Txankakua S.T. 35 - Andraitz 41

Eskubaloia

Ereintza 8 - Pagoaga Elgoibar 22 (Kad. neskek)
Elgoibar 34 - Urola 6 (Kad. mutilak)
Hondarribi 32 - Elgoibar 26 (Jubenilak)
Txankakua Elgoibar 21 - Bergara 16 (Seniorrak)

Futbitoa

Karkis - Aterpe (Atzeratua)
Lucky Luke 3 - Berrogei Duro 2
Pedruskos 7 - S. Pitxote 0
P.S.K. 3 - S. Karapola 1
Oraiko Disko 3 - King Kong 0

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Larunbata 11

12,00 Elgoibar - Aretxabaleta (Neskek)
13,15 Urki B - Iintxa (Jubenilak)
17,00 Haundi - Zalla

Igandea 12

12,00 Elgoibar - Real Sociedad (Infantilak)
13,30 Beti Sutan - Segura (2. erreg.)
17,00 Elgoibar - Zarautz (1. erreg.)

Areto Futbola, Kiroldegian

Ostirala, 10

22,30 Elgoibar F.S. - Antxeta (2. maila)

Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbata 11

16,00 Elgoibar Pagoaga - Arrate Amaña (Kad. neskek)

Futbitoa, Urasandin

Igandea 12 (Arbitraia: King-Kong)

10,00 Ametsa - Aldavas
11,00 Roke - S. Braga
Kosakos - Sanroketarra
12,00 Orbela - Ikus Optika
Rebel Urbi - Udaberri



Hiru partidu jokatu ditu dagoeneko Sas Taldeak

Txankakua Saskibaloia Taldeak bi hilabete eskas daramatza martxan. Iaz egin zuten taldea sortzeko lehen saiakera, baina saiakera ahalegin hutsean geratu zen dirurik lortzerik izan ez zutelako. 95/96 denboraldia, ordea, erabakiorra izan da. Udalaren eta Aldundiaren diru laguntza jaso dute, 100.000 pta. erakunde bakoitzetik. Aurtengo denboraldirako aurreikusitako 300.000 pta.ko aurrekontua berdintzerik izango duten esperantza dute.

Txankakua Merkatari eta Zerbitzarien Elkartek 70.000 pta.ko diru laguntza eman die, taldekideen jantziak eta baloiak erosteko. Bazkide kanpaina ere hasi dute, 500 pta.ren truke. Bazkideek partiduetan jaurtikitak egiteko aukera izango dute eta denboraldi amaieran bi pertsonarentzako afaria zozketatuko dute bazkideen artean. Diru laguntzekin eta bestelako diru sarrerekin arbitraiak ordaindu eta Kiroldegiaren alokairua ordaintzeko adina izango dutela uste dute.

Hamaika jokalarik osatzen dute Elgoibarko Saskibaloia Taldea. Horietako bat Jose Antonio Etxeberria da. Berak esandakoaren arabera, "gutxie-



AITOR ZABALA

■ ■ Tente, ezkerretik hasita: Aitor Rementeria, Gorka Regil, Aitor Mendikute, Lordi Txurruka, Andoni Rementeria eta Mikel Artola. Makurtuta: Antxon Elustondo (zelaiko ordezkaria), Jose Juan Gabilondo, Fran Rezola, Jose Antonio Etxeberria, Imanol Rodriguez eta Asier Gabilondo.

nez 10 lagun behar dira ekipo bat osatzeko. Kantxan bost aritzen dira baina aldaketak etengabe egiten direnez 11 edo 12 jokalarik izan behar ditu talde batek".

Entrenamenduetarako hiru egun jarri dituzte. Egun batean fisikoa lantzen dute, beste egun batean teknika, eta hirugarren egunean "bietatik pisikat". Entrenatzaile lanetan Jose Juan

Gabilondo aritzen da, "saskibaloiko monitorea baita".

Taldea finkatu

Dagoeneko hiru partidu jokatu dituzte elgoibartarrek. "Hirurak galdu ditxugu baina lenengo urtian hori normala da". Bigarren mailan jokatzen dute, probintziazalean. Aurten elkarte finkatzea da inportanteena.

• KIROL FLASHAK • KIROL FLASHAK • KIROL FLASHAK • KIROL FLASHAK •



Patxi Arriola elgoibartarrak Gipuzkoako Ehiza Txapelketa irabazi zuen joan den igandean Otzarten (Zegama). "Caza menor" izeneko modalitatean nagusitasun osoz irabazi zuen Patxik. Goizeko 9,30etan hasi eta eguerdiko 1,30etan bukatu zen txapelketan 5 eper eta 6 faisai hil zituen, 11 pieza guztira. 30 ehiztarik hartu zuten parte, Debako zonaldeetik Eibarren sailkatu ziren bi eibartar eta Elgoibarko Patxi Arriola. Guztira 45 eper eta beste 45 oilagor askatu ziren. 31 urteko gazte honek txapel ugari irabazi ditu dagoeneko. "Caza menor" deritzon bigarren aldiz irabazi du Patxik Gipuzkoako Txapelketa eta oilagorretan Gipuzkoako, Euskadiko eta Espainiako txapeldun izan zen iaz.

DUDARIPE!

ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartea hobeto ezagutzeko komikia



Egun 570 bazkide inguru ditu Elkarteak eta helburua ahalik eta gehien izatea da. Bazkideak dira Elkarteari babes soziala eta ekonomikoa ematen diotenak.

Helburua euskararen normalizazioa dela esan dugu. Bi ideia azpimarratuko genituzke: batetik, euskara Elgoibarko alor guztietan normaltasun osoz erabiltzea eta bestetik, euskaldunok euskara hutsean bizitzeko aukera izatea.



Elkarteak euskaltzaleen bilgunea izan nahi du. Elgoibarren euskararen alde zerbait egin nahi duen pentsakera eta izakera ezberdinetako jendeari irekia dago, inolako bereizketarik gabe. Erdaldunok ere badago bazkideen artean, nahiz eta jakin Elkartearen jarduna euskaraz dela.



Sortu zutenak eura izan baziren ere, hasiera beretik 1.400 bazkide biltzea lortu zen. Oso proiektu herrikoa izan zen eta makina bat lagunek egin zuen lan Elkartearen alde. Diruari dagokionean ere, orduan ez zegoen gaurko dirulaguntzarik eta handik eta handik dirua lortzeko izerdi asko ateratakoa da hamaika herritar.



Ezin dugu ahaztu 1963. urtean bizi zen giroa oso bestelakoa zela, frankismo garaia zen. Euskara eta euskal kulturarekin zerikusia zuen guztia debekatua eta baztertua zegoen. Egoera honi aurre egiteko sortu zen Elkarteak. Lehenengo lorpenen artean ikastola, alfabetatze ikastaroak, eskola ezberdinak, jaialdiak etab. azpimarratuko genituzke.



Duela 4 urte arte, Ikastolako Junta Erretoran Elkarteak lekua zeukan, baina harez gero ikastolarekiko loturak eten eta autonomia osoarekin funtzionatzen du.



Horrelako kasuetan, nahi dena baino gehiago ahal dena egiten da, euskararen aldeko lana luzea eta oztopoz bete da. Beraz, Elkarteak lanerako filosofia eta lehenetsunak erabaki behar ditu eta hauen arabera finkatu plangintzak.

**Datorren
astean
jarraituko du**

Ikastaroak

KUTXA FUNDAZIOAK hainbat ikastaro antolatu ditu Aula Gaztearen ihardueren barruan. Hauetariko batzuk Elgoibarko Kultur Etxean burutuko dira. Horrela, "Ikasketa Teknikak Euskaraz" abenduaren 22, 27 eta 29an eta urtarrilaren 3 eta 5ean izango da. Martxoan Komunikazio Tekniken alorrean sakontzeko aukera eskainiko duen ikastaroa burutuko da eta azkenik, maiatzean "Enplegu Teknikak Euskaraz" ikastaroa emango da. Ikastaroen berri zehatza ematen duten liburuska Kutxako edozein bulegotan jaso daiteke edo Gazteklubeko 42 63 19 zenbakira deituz.

Lehiaketak

Bergarako Jardun elkarteak **IV. KOMIKI LEHIAKETA** antolatu du. Hiru kategoria daude: OHoko 6., 7. eta 8. mailak osatuko dute 1. taldea, 14 eta 18 urtera bitartekoek bigarrena eta 18 urtetik gorakoek hirugarrena. DIN A3 formatoan, 1. taldekoek gutxienez 2 orrialdeko lanak egin behar dituzte, 2. taldekoek 3 eta 3. taldekoek 4 orrialde. Lan guztiek euskaraz beharko dute izan. Sariak, 35.000 pta.ra artekoak dira. Epea: abenduak 14. Jardun elkarteak, Masterreka 13, behea. 20570 Bergara.

Gordexolako Kultur Etxeak **VIII. IPUIN LEHIAKETA** antolatu du. 16 eta 20 urte bitartekoek lanak gutxienez 2 orrialde beharko dute izan eta gehienez 3. 21 eta 30 urte bitartekoek, berriz, 2/5 eta 5 orrialde bitartean. Sariak 30.000 eta 80.000 pta. bitartekoak dira. Epea: abenduak 11. Kultur Etxera edo Udaletxera bidali behar dira, Sandamendi 1, 48192 Gordexola, Bizkaia.

Gazte KLUBA

Bigarren urtea da Parrokiako Gazte Kluba martxan jarri dela. OHoko 6. mailatik hasita eta BBB edo REMeko lehen mailara arteko neska-mutilentzat txokoa sortu nahi izan zuen Parrokiak. Honela, astebukaera guztietan, nahi duten guztiek Ubitarte auzoan badute lokalik elkartzeko.



Elgoibarko gazteek elkartzeko tokirik ez zutela ikusita, Parrokiak zerbait egitea pentsatu zuen. Zuhaitz astialdi taldearekin harremanetan jarri ziren beraien asmoa azalduz eta, biek elkarlanean, Parrokiak Ubitarten duen lokala egokitu eta Gazte Kluba sortu zuten. Zuhaitz taldeak urtean zehar OHoko 6., 7., eta 8. mailekin eta BBBko eta REMeko 1. mailakoekin egiten du lan. Hainbat ekintza antolatzen dituzte beraientzat eta Gazte Kluba, printzipioz, adin horretako haurrei zuzendua dago. Ubitarteko lokalean era guztietako jolasak dituzte, futbolina, kartak, Trivial delakoa... Eta telebista eta bideoa ere badaudenez, noizean behin pelikulak ikusten dituzte.

Astebukaeretan irekita

Zuhaitz taldeko begiraleak txandaka egoten dira lokalean, hurrekin jolastuz eta haien artean sor daitezkeen iskanbilak baretuz. Sendotza taldean ibilitako gazteak ere inplikatu nahi dituzte, haiek erabilitako lokala orain beraiek ere zain dezaten nolabait. Mementuz 30 haur inguru elkartzen dira batz bestea. Halere, orain hasi berriak dira eta kopurua gehituko delakoa daude antolatzaileak. Mahaie-tan eserita, taldeka, lagunartean, jateko zerbait eramanez eta neguko arratsalde euritsuak non eta nola pasaturik badute neska-mutil gazte hauek. Mementuz, larunbatetan arratsaldeko 6ak eta 8ak bitartean egoten da irekita eta igandetan, 4,30ak eta 8,30ak bitartean.

Salerosketak

PISTAKO BIZIKLETA bat saltzen dut egoera oso onean. Berria.
☎ 74 01 84

Komedorerako aulki batzuk saltzen ditut. Egoera oso onean daude.
☎ 74 37 22 (goizez 8-10)

3 urteko ASTOA eta pare bat urteko BEHI ESNE DUNA erosiko genituzke.
☎ 74 37 68 Antonio (Aranbeltz baserria)

1,05 oherako BI EDREDOI SALTZEN DITUT modu onean.
☎ 74 05 67 Maria Luisa

MENDIKO BIZIKLETA txiki bat saldu nahi dut. Orbea markakoa.
☎ 74 34 06

GAC ZIKLOMOTORE BAT saltzen dut. Lau urte ditu, beltza eta aseguria dauka 96ko maiatza arte. Ia berria dago, 50.000 pta. Ikusteko: CIMDE P. Muguruza 23
☎ 74 08 52 / 74 02 43 Txus

FRIGORIFIKO TXIKI BAT saltzen dut. Estrenatu gabe. 23.000 pta.
☎ 74 01 51

Opel Kadet GSI 1.800 inyección SS-AJ 76.000 km. salgai.
☎ 19 19 54

BI AKUMULADORE eta HIRU BEROGAILU salgai. Erabili gabe, egoera oso onean.
☎ 74 09 23

ARMAIRU BAT saldu nahi dut: biltzen den ohea, 6 kajoi, bi sekreter eta abar... Prezio onean.
☎ 74 15 75

Etxebizitzak

SANTA KLARAN PISU BAT SALTZEN dut. 24. zenbakia 5B.
☎ 74 32 98

PISU BAT ALOKATUKO NUKE Elgoibarren.
☎ 74 21 25 Antxon Salegi

ETXEBIZITZA BAT saltzen dut SORALUZEN.
☎ 74 34 05 / 74 34 06
M. Carmen edo Aurora

ETXE BAT SALTZEN dut Santa Ana kalean. Egoera oso onean eta igogailuarekin.
☎ 74 36 34 / 74 38 41 Pili

PISU BAT ALOKATU NAHI DUT neska batekin Elgoibarren edo Eibarren.
☎ 74 16 30 Maria Oliva
Goizez 9,30-13,30

ETXEBIZITZA BAT ALOKATU NAHI DUT Elgoibarren. Altzariak badauzka hobe.
☎ 74 28 36

Pertsona bat behar dut Donostiako OKENDO kalean PISUA konpartitzeko.
☎ 42 51 49

Lana

C1 KARNETA dut eta banaketa lanak, anbulantziak, taxiak, 16 tn.tako kamioiak gidatzeko prest nago.
☎ 74 14 96 Izaskun

Neska bat KANGURO LANAK egiteko prest dago.
☎ 74 24 53 Yoli

Dietetika eta Nutrizio tekniko espezialista, klinika auxiliar eta farmazia auxiliar tituluduna lanerako prest dago.
☎ 74 24 48 Marta

Neska euskaldun bat ETXEKO LANAK EDO UMEAK ZAINTZEKO PREST dago.
☎ 74 07 82 Aurrene
☎ 14 77 64 Manoli

Mendaroko baserri batean gaixo bat zaintzeko emakume bat behar da. Egunean ordubete. Hobe Mendarokoa bada.
☎ 15 04 41 Maribel

Garajeak

GARAJE ITXI BAT saltzen dut Arregitorren. 38,19 m²
☎ 74 30 81
Gaueko 9,30etatik aurrera

Partikularrak

Injinerutza eta magisteritza tituludunak KLASA PARTIKULARRAK ematen ditu.
☎ 74 01 48 Alazne

MARRAZKETA LINEAL ETA DIEDRIKOKO klaseak ematen ditut.
☎ 74 43 98 / 74 34 01 Iñaki

OHoko KLASA PARTIKULARRAK ematen ditugu Elgoibarren.
☎ 68 20 42 / 67 06 49

Bestelakoak

Domekan ERAZTUN BAT GALDU NUEN. Urrezkoa, perla zuri altu bat eta koloretako perlak ditu inguruan.
☎ 74 03 44

Karitasek LABADORA bat behar du.
☎ 74 15 09 - 74 12 57

PREMIAZKO TELEFONOAK



OSASUNA

Anbulategia:
Larrialdiak.....461111
Txanda hartzeko.....743354
Planning-a742950
Alkoholiko Anonimoak..740385
D.Y.A (anbulantzia) ..464622
Gurutze Gorria.....743864
Mendaroko Ospitalea756264
Drogomenpekotasun Z. 741008
Odol Emaileak743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....740442
PESA (Eibar).....102131
Taxi geltokia.....740898

UDALA

Euskara Zerbitzua.....744366
Kirol Zerbitzua744415
Kultura Zerbitzua742158
Mendaroko Udala756100
Ongizate zerbitzua...743736
Udaletxea741050
Udaltzaingoa741394

BESTELAKOAK

Caritas740142
Elgoibarko Izarra.....741626
IMI.....741196
Kontsumo Bulegoa ...743088
Liburutegia743525
Musika Eskola742145
Mintxeta744315
Parrokia740842
Polikiroldegia741361
Postetxea.....741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza...740296
Zaharren Biltokia740526

IKASTETXEAK

Herri Eskola74 08 79
I.M.H.74 41 32
Instituta74 02 67
Ikastola74 44 41
L.H.I.....74 44 80
Pilar Ikastetxea74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN.....74 41 12
El Diario Vasco74 40 73
El Mundo74 27 59
El Correo Español...74 10 82
Egin.....10 84 21
Zazpiki74 34 74

10 OSTIRALA

22,15 ZINEA

“Marea Roja”

11 LARUNBATA

19,30-22,15 ZINEA

“Marea Roja”

12 IGANDEA

18,00 FESTA DO MAGOSTO

Ardo eta gaztaina banaketa

✓ Urasandin

Antolatzailea: Galiza Etxea

16,30-19,30-22,15 ZINEA

“Marea Roja”

13 ASTELEHENA

22,15 ZINEA

“Marea Roja”

14 ASTEARTEA

19,30 INTSUMITUEN ALDEKO
PLATAFORMAREN AURKEZPENA

✓ Kultur Etxean

22,00 ZINEA

“La locura del Rey Jorge”

(Ikuslearen eguna)

17 OSTIRALA

9,30 - 11,15 TXOTXONGILOAK

OHOKo haurrentzat

✓ Herriko Antzokian

Antolatzailea: Deba Beheko

Makomunitatea

19,30 LAGUN TALDEAREN
BATZAR OROKORRA

✓ Kultur Etxean

22,15 ZINEA

“Apolo XIII”

txandak

FARMAZIAK:

DATA	EGUNEZ	GAUEZ
11, larunbata:	Yudego	Yudego
12, igandea:	Yudego	Yudego
13, astelehena:	Bidasolo	Bidasolo
14, asteartea:	Bidasolo	Bidasolo
15, asteazkena:	Bidasolo	Bidasolo
16, osteguna:	Bidasolo	Bidasolo
17, ostirala:	Bidasolo	Bidasolo

OKINDEGIA:

12, igandea: DONA MERCEDES

ZineA

Marea roja

Zuzendaria: Tony Scott

Antzezleak: Denzel
Washington, Gene Hackman,
Matt Craven.

Kubako misilen krisiaren ostean munduak ezagutuko duen emergentzia egoerarik larriena gertatuko da. Burutik jota dagoen errusiar nazionalista batek

Ejertzito Gorriko frakzio errebelde batekin batera misil nuklearrak dituen base bat bereganatuko dute. Alabama izeneko submarinoa Errusiarantz abiatzen da. Submarinoko bi arduradun ez dira bat etorriko errusiarren kontra misil nuklearrak botatzeko ordena jasotzen dutenean.



La locura del Rey Jorge

Zuzendaria: Nicholas Hytner.

Antzezleak: Rupert Graves,
Helen Mirren, Amanda
Donohoe, Charlotte Curley.

1786. urtea. Jorge III.a da Ingalaterrako errege. Carlota erregina da bere emaztea.

Hamabost seme-alaba dituzte,

Gales-eko printzea eta York-eko dukea tartean. Egun batean, hain errespetagarria den erregearen jokabidea erabat aldatuko da, lizun eta erasokor bihurtu. Erregea zorutzen hasita ez ote dagoen pentsatzen hasiko dira ingurukoak.





- **Diseinu berria** eta telefono zelularren antzerako tamainu txikia.
- **Autoscan teknologiari** esker kalitate handieneko soinua telefono elkarrizketetan.
- Seguritate osoa; ez duzu bakardade faltagatik edo dei iruzurtiengatik arduratu beharrik izango: **65.000 arrazoi seguruk** ekidituko dute.




Zer gehiago eska diezaiokezu kablerik gabeko telefono bati?

- Telefono bati eska diezazkiokezun **erraztasunak**: Rellamada, R Tekla, Abisua, **Kanala eskuz aldatzeko aukera**, datuetarako pasoa, 10 zenbakiko memoria,...

Ezin da gehiago eskatu!





Santa Ana, 8 eta 10 • Tel. 74 12 34 • ELGOIBAR

ALTZARIAK

PROIEKTUAK
ERREFORMAK
DEKORAZIOA

